



Nazioarteko Kros polita jokatu zen Hipodromoan

Giro bikaina izan zen atzo goizean Hipodromoan Donostiako LVI. Nazioarteko Krosean. Ez zuen euririk egin eta beraz giro ezin hobea izan zuten proba ezagun honetan parte hartu zuten adin guztiakoko korrikalariak. Lasterketa nagusian, senior mailakoan, lehenengoak Kiprono Menjo kenyarra eta Nuria Fernandez madrildarra izan ziren. /4-5 ORRIALDEAK



Gora Gora Kids taldearen abesti biziek giro bikaina jarri zuten ostiral gauean Jalgi Kafe Antzokian. Irudian, kontzertuaren hasierako momentu bat.

Gora Gora Kids taldea Jalgin

Gora Gora Kids, Koldo Almandotz zinegilearen eta bere lagunaren rock taldeak kontzertu bikaina

eskaini zuen Jalgin ostiral gauean. Donostiarrek giro polita jarri zuten euren dantzatzeko moduko abesti bizie-

kin eta Jalgin elkartu zirenek ederki pasa zuten gaueko 11etan hasi zen emanaldian. Gora Gora Kids taldeko lau

musikariez gain, lagun batzuek ere igo ziren oholtzara kantu batzuetan abesten laguntzera. •

Organo eta oboe musika tresnak ezagutzen

Oboe eta organoaren doinuek bete zuten Ama Brigitarren komentuko kapera ostiralean. Danok Kidek antolatzen dituen VI. Musika Topaketetako emanaldi honetan, Casandra Alvarez eta Alberto Saez oboe eta organo joleek kaperara hurbildu ziren herritarren gozamenerako, hala nola, Bach, Albinoni edo Telemannen lanak eskaini zituzten. Bi instrumentuak batera edo organoa bakarka entzun eta hauei buruz gehigo jakin zuten ikusleek bi musikari gazteen eskutik. •



Oboe eta organoarekin, batera, eskainitako obrak barroko arokoak izan ziren. Horietako bat, Albinoniren *Adagio*.

KIROLA/2

Zubizarreta eta Garrido txapeldun, Euskadiko borroka eta sanbo probetan

ALBISTEA/3

Erraustegia eta kartzela Zubietan jartzearen aurka azaldu da Udala

ALBISTEA/6

Inauterietan San Ferminak ospatuko dira Lasarte-Orian



GURUTZETA SAGARDOTEGIA

SAGARDOA ZER DEN BALDIN BADAKIZU, EDERKI ANTZEMANGO DIOZU GUREARI

TRADIZIOA ETA BERRIKUNTZA, SAGARDO NATUREALEAN

Oialume bidea 63 • Tel.: 943 552242 • Faxa: 943 552292 • ASTIGARRAGA (Gipuzkoa)
gurutzeta@gurutzeta.com • www.gurutzeta.com

ZATOZ TXOTX EGITERA!

ZATOZ TXOTX EGITERA!

ZATOZ TXOTX EGITERA!

ZATOZ TXOTX EGITERA!

Zubizarreta eta Garrido, Euskadiko borroka eta sanbo txapeldun

LOKEko Josu Olmosek ere Espainiako kanporaketarako sailkapena eskuratu zuen

Urtarrilaren 23an, igandean, Gasteizko Abetxuko polikiroldegian Euskadiko sanbo eta borroka txapelketa burutu zen.

Bertan LOKEko judo taldeko kirolariek parte hartu eta garaipen garrantzitsuak eta esanguratsuak eskuratu zituzten.

Txapeldunetan txapeldun

Leire Zubizarreta eta Mario Garrido bikain ibili ziren txapelketan.

Bai Sanbo, eta baita borrokan ere, borrokaldiak irabazi zituzten, lehenengo geratu ziren haien kategorian eta, horren ondorioz, Euskadiko txapeldun titulua eskuratu zuten.

Josu Olmos ere ederki aritu zen Euskadiko Txapelketan. Bere pisuko Sanbo kategorian lehenengo amaitu

zuen eta borrokan bigarren postua lortu zuen. Orokorrean, bigarren postua eskuratu zuen.

Emaitza bikainak

Oso pozik agertu da Gorka Aristegi entrenatzailea bere mutilek Euskadiko Txapelketan lortutako emaitzekin.

Izan ere, emaitza bikain haei esker hirurak Espainiako txapelketan egongo dira. Kadeteen kanporaketa Murtzian egingo da. Jubenilak eta juniorrak, aldiz, Gijon eta Granadan dute kanporaketa.

Alebinak txapeldun

Honetaz gain, herrian judon harrobi ederra dagoela ezin da ukatu.

Urtarrilaren 15ean, Tolosan ospatu zen Eskola kiroleko jardunaldian, LOKEko alebinek Gipuzkoako taldeka-



Garrido, Zubizarreta eta Olmos argazkian ezkerretan, Ama Guadalupeko taldeko kirolariek. Arg.: www.judoamaguadalupekoa.com

ko txapelketarako sailkapena eskuratu zuten.

Lehiaketa horretan Gorka Aristondo, Beñat Loiarate, Unai Elizegi, Enara Ramirez,

Romina Melissa, Jone Arroyo, Juanjo Quesada, Talib Vergara, Jorge Revuelta eta Mikel gaztetxoak gogor borrokatu ziren lurraldeko txapelketa

nagusien egoteko.

Hau otsailaren 27an izango da Lezon eta bertan garaipena lortzeko lan egingo dute taldeko txikiak. •



Ostadar K.F.-ko ordezkariak 2010-2011 denboraldiko futbol porrako lehenengo itzuliko sari banaketa egin zuten Ainhoa tabernan.

Futbol porrak baditu lehen itzuliko saridunak

Ostadar K.F. 2010-2011 futbol denboraldiari begira antolatutako porrak baditu jada lehenengo itzuliko irabazleak.

“Don Javier Clemente” izeneko txartelak eskuratu du lehenengo postua eta 360 euroko saria. “Egun On Joxe” izenekoak aldiz, bigarren postua eta 180 euro saria.

Urdaiazpikoak

Lehenengo bi postuetan geratu ez badira ere, beste parte hartzaile askok jasoko dute

saria urdaiazpiko zozketari esker. Hauk dira; Jesus Garcia, Demetrio Sanchez, Blas-kel, eta Rober & Niko.

Goiegina afaria

Ainhoa tabernak ere bi pertsonentzako afaria eskuratu du Goiegina, gehien puntuatu duen taberna izateagatik. Orotara 12.602 puntu egin dituzte bertako bezeroek.

Ostadarreko arduradunek Ainhoa tabernan egin zuten ostiralean, lehenengo porra honetako sari banaketa. •

Txintzarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintzarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintzarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Udalak N-1ren lurperatzea aztertzea eskatu dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, kutsadura akustikoa eta atmosferikoa guxtizeko.

Udala, erraustegia eta kartzela Zubietan jartzearen aurka

■ Donostiako Lurralde Planari bederatzia alegazio egin dizkio Lasarte-Oriako Udalak ■ Foru Aldundiak Atsobakarreko egoitzaren ardura bere gain hartzen ez badu epaitegira joko du

Erraustegia, kuartela eta kartzela Zubietan jartzearen aurka azaldu da Lasarte-Oriako Udala. Donostiako Lurralde Zati-ko Planari (LZP) bederatzia alegazio egin dizkio Udalak, eta prentsaurreko batean, Jesus Maria Zaballo herriko alkateak eman zuen horien berri.

Zaballosek adierazi zuten, LZPea hartutako erabakien ondorioz Lasarte-Oria "herri kaltetuen izango litzateke" erraustegia eta kartzela berria Zubietan eraiki eta Loiolako kuartela bertara eraman baldin badira.

Hiru erabaki hauek "beharrezko azterketak egin gabe erabaki direla uste dugu" adierazi zuen Zaballosek.

Gainera, "kutsadura akustikoa, hondakinek ekarriko dituzten garraioak... gure udalerritik pasako dira eta azkenean lasarteoriarrok pairatu beharko ditugu ondorioak" gaineratu zuen alkateak.

Kartzela eta kuartelaren inguruan "gure uestez hirigunetik ahalik eta urrunena mantendu behar diren eraikinak dira hauek" aipatu zuen Zaballosek.

Lurperatuta hobe

N-1 errepideak Lasarte-Oria bitan zatitzen duenez, eta honetaz gain ondoan bizi diren biztanleei kutsadura akustikoa eta atmosferikoa handia eragiten dienez, "N-1 lurperatzeko aukera luzatzen diogu diputaziorri" azaldu zuen Zaballosek.

Alkatearen ustez, herritik pasatzen den trama "ez da

luzeegia, beraz ikertzeko deia egiten diegu".

Udalak argi dauka obra konplexua eta luzea izango litzatekeela, baina "Irunen adibidez trenbidea lurperatzeko aukera aztertuko dutela eman dute jakitera, eta hartzen duen lekua gure udalerrira baina askoz zabalagoa da" argudiatu zuen Iñaki Mugika alkateordeak.

Azken obretan Udaletik enpresa eraikitzailei Goi-tentsioko lineak lurperatu ditzaizten eskatu zaie eta horregatik LZPen Urnietatik Zubietako gainak bitartean subestazio elektrikoa eraikiko dela aurreikusten bada ere "hori lurperatzea eskatzen diegu" dio Zaballok.

Zuzenketak

LZPn Oriara doan bidegorria aurreikusten da eta egina badago ere "beste kokapen bat eman diote eta hori zuzentzeko eskatzen diegu beraz" jakinarazi zuen Zaballo alkateak. "A-39 Teresategi Hegoan" zenbaketan ere akats bat dago eta hori zuzentzeko eskatzen diete Udaletik.

Zubietako antolamendu berri honetan ere industria gunea bat aurreikusten da eta bertan Michelin 2, Kotxerak eta herriko industriagunea sartu dituzte "eta hori zuzendu eta ordenamendutik atera behako lukete, izan ere Kotxeretan etxebizitzak eraikiko dira" Zaballoren hitzetan.

Bestetik, herriko Udaletik Lasarte-Oria Zubietako gunearekin bat egiteaz gain Atsobakar eta Errekaldeko zonaldeak ere LZP-n barnera-

tzea eskatzen dute "eta horrela plan honen barruan aurkitzen diren herrialdeen artean zonalde hau nola antolatuko den hitzartzea".

Azken alegazioan LZPn Euskotren Oriara eramateko bideragarritasuna islatzea eskatu dio Lasarte-Oriako Udalak Aldundiari.

Atsobakarreko ardura

Atsobakarreko egoitza 1998an eraiki zen Lasarte-Orian, Udalaren kudeaketapean. Baina 2001etik aurrera, Gizarte Segurantzak hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren ardura izan-go zela legezatu zen.

Harez geroztik, Aldundiak ez du bere gain hartu Atsobakarreko gastua "eta Udalak finantzatzen du bere eskumena ez izan arren" azaldu zuen Zaballosek. Horrek, Lasarte-Oriako Udalarari 3.780.532, 57 euroko galera eragin dio.

Gastu hau "Aldundiak finantzatu beharko luke eta ez lasarteoriarrek" azaldu zuen Zaballosek eta "herriko dirua den heinean herrian geratu beharko litzake eta ez gipuzkoar guztien zerbitzu batean gastatu" gaineratu zuen. Beraz, kargu hartzeaz gain "zorra ordaintzeko eskatzen diegu".

Krisialdiaren eraginez, egoera jasangarria bilakatu da eta Lasarte-Oriako Udalak behingoz Aldundiari Atsobakarreko ardura hartzeko eskatu dio eskutitz baten bidez "erantzunik jasotzen ez badugu epaitegira jotzea baino ez zaigu geratuko" bukatu zuen herriko alkatea den Jesus Zaballosek. •

HEZIKETA

Txakur-heziketa programa hasi da

Asteazkenean, "Asociación Noble y Fiel Amigo" elkarteak kideek txakurren jabeak heziketa programari hasiera eman zioten, Manuel Lekuona kultur etxean.

Elkarteko kideek, programaren berri eman zuten saioaren hasieran, zenbat hitzaldi izango diren, bi lantegi praktiko egongo direla eta 8 euro ordaindu beharko dela hauetan egoteko, etab.

Ondoren, txakurren edukitze arduratsuari buruzko hitzaldia eskaini zuten eta hitzaldira hurbildu ziren herritarrek galderak ere egin zituzten.

Programa hau Lasarte-Oriako Udalak eta "Asociación Noble y Fiel Amigo" elkarteak sinatutako hitzarmenaren ondorioz jarri da martxan.

Asteazkenekoa, sei hitzaldiren lehenengoa da eta programaren helburua, "txakurrak arduratsuki edukitzeari buruz herritarrei informazio espezializatua eskaini eta, hartara, bizikidetzan aurrera egin, osasun-arazoak saihestu eta txakur-abandonatzeen kopurua murriztu ahal izatea" da. •



Herritar talde bat hurbildu zen txakur-heziketa programako lehenengo saiora.

UDALTZAINGOA

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, zilarrezko kolgantea, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta, lau erloju, urrezko pultsera, betaurreko graduatuak, eraztun bat, hiru diru zorro, gerriko poltsa, manikura kutxatilla, neskaren eskumuturra eta zilarrezko pultsera bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara. •

GIZARTEA

Lasarte-Oriako Alkoholiko Anonimo taldearen 3. urteurrena

Bihar, asteartea, otsailaren 1a, Lasarte-Oriako Alkoholiko Anonimo taldearen 3. urteurrena ospatuko da Villa Mirentxun.

Egun seinalatu hori ospatzeko, hitzaldi irekia antolatu du elkarteak. Honetan alkoholismoari buruzko "Las Doce Trampas" deritzon lan berezia aurkeztuko da eta elkarteak kideek jakinarazi dutenez, "hitzaldira hurbiltzen direnei zirrara sortuko die entzungo dutena".

Honetaz gain, Gipuzkoako Osasun Mental ataleko zuzendaria den Alvaro Iruin doktoreak eta Beltran familiako medikuak hitza egingo dute. Beltranek, gainera, familiaren eta alkoholismoaren inguruan, berak bizitako esperientzia berezia kontatuko du.

Ostean, Al-Anon familia taldearen ordezkarietako batek hitz egingo du eta azkenik, Lasarte-Oriako taldeko kide egingo.

Gauzak honela, bihar Villa Mirentxuko ateak irekiak egongo dira 19:30etatik aurrera, taldea ezagutu eta hitzaldia entzun nahi dutenei.

Era berean, Alkoholiko Anonimoen taldeak gaixotasun honen ondorioak pairatu dituzten pertsonari eta herriko ordezkari politiko, zein elkarte desberdinei gonbita egiten die ospakizun honetara. •

Giro bikaina Nazioarteko LVI. Krosean

■ Kiproko Menjo eta Nuria Fernandez izan ziren lehenengoak senior mailan ■ Olatz Flores izan zen emakumeen jubeni mailan irabazle ■ Sukunza, Bodegas eta Itoitz herritarak ondo aritu ziren

Giro bikaina izan zen atzo goizean Hipodromoan Donostiako LVI. Nazioarteko Krosean. Eguraldiak lagundu egin zuten, ez zuen goiz guztian euririk egin, eta bezperako zaparraden ondorioz lokatza pixka bat baldin bazegoen ere, korrika egiteko giro ezin hobea zen. Goizeko 10:30ean hasita hainbat lasterketa egin ziren, baina garrantzitsuenetan, senior mailako lehenengoak Kiproko Menjo kenyarra eta Nuria Fernandez 1.500 metroko Europako txapelidun madrildarra izan ziren.

Jon AULTUNA

Giproko Menjo eta Nuria Fernandez izan ziren lehenengoak senior mailan irabazle. Sukunza, Bodegas eta Itoitz herritarak ondo aritu ziren. Emakumeen probak eritimo modura izan zuten eta azken espresitan nagusitu zen Nuria Fernandez madrildarra 16 minutu eta 34 segundorik. Ondoren duela hiru ure itabazte izan zen Kenyako Eunice Jepkorir (19:00) eta Valentziako Gemma Barrachina (19:01) saikatu ziren. Fernandez irabazte oso pozik izan eta antolatzaileek berari deituko izan duten ausardia nabarmendu zuen, izan ere, garai txarrik pasa ditu atletis- moan duela gutxi salatu den dopin kasuarekin lotu baitute. Gipuzkoako txapelketa ere jokatu zen lasterketa honetan eta podiumean Penélope Baños, Pili Bodegas eta Maite Maiora igo ziren. Bodegas lasarteortiarren parte hartzen handirik izan, LOKE taldeko partaidea bakarra Itoitz herritarra izan zen. Bodegas irabazte oso pozik izan zen, 21-04 denboran izan zuen, 14 dortsala zuen eta 14. postuan sartu zuen.

Pili Bodegas txapelidunorde Bukarera, pozik, zen Pili Bodegas: "Uste nuen baino hobeto aritu naiz. Ondo izan da 6. segundoko denborarekin. Mhishel 31.1.3rekin eta Lebid 31.17rekin. Alaitz Ricardo Serrano madrildarra, eta Ivan Fernandez arabarra izan ziren bigarrenak. Gostuko du proba baina lasterketa hasieran ornetako bat galduta ondoren, bakarrarekin egin zuten ia proba osoa eta Woldek azken espresitan hartu zion aurrea, beraz irabazteko gai zela pentsatu eta hurrengo urtean buru belari prestatu zen irabazteko eta irabazi egin zuen. Munduko txapelketa batean seigarrena izan zen.

Auto zaharrak Hipodromo sarrerako aparatuak erakutsi zituzten 25 minutu eta 35 segundoko denborarekin.

Omenaldia Jose Miel Maiz korrikalari aiarra omendu zuten bestalde alzo antolatzaileek 1968an irabazi zuten Nazioarteko Krosean Mamo Wolde eta Nafarroa Pato korrikalari handien aurretik.

Itoitz bakarra Bestalde, hashiberi, infanti, kadete eta jubeni mailan ez zuten lasarteortiarren parte hartzen handirik izan, LOKE taldeko partaidea bakarra Itoitz herritarra izan zen.

Auto zaharrak Hipodromo sarrerako aparatuak erakutsi zituzten 25 minutu eta 35 segundoko denborarekin.

Omenaldia Jose Miel Maiz korrikalari aiarra omendu zuten bestalde alzo antolatzaileek 1968an irabazi zuten Nazioarteko Krosean Mamo Wolde eta Nafarroa Pato korrikalari handien aurretik.



Ikuste ugari bildu zen krosean. Batezuz Donostiatik oinez etortzeko aurreratu susten duela.

egon naizelako" komatu zigun amaieran. Gostuko du proba baina lasterketa hasieran ornetako bat galduta ondoren, bakarrarekin egin zuten ia proba osoa eta Woldek azken espresitan hartu zion aurrea, beraz irabazteko gai zela pentsatu eta hurrengo urtean buru belari prestatu zen irabazteko eta irabazi egin zuen. Munduko txapelketa batean seigarrena izan zen.

Auto zaharrak Hipodromo sarrerako aparatuak erakutsi zituzten 25 minutu eta 35 segundoko denborarekin.

Omenaldia Jose Miel Maiz korrikalari aiarra omendu zuten bestalde alzo antolatzaileek 1968an irabazi zuten Nazioarteko Krosean Mamo Wolde eta Nafarroa Pato korrikalari handien aurretik.

Itoitz bakarra Bestalde, hashiberi, infanti, kadete eta jubeni mailan ez zuten lasarteortiarren parte hartzen handirik izan, LOKE taldeko partaidea bakarra Itoitz herritarra izan zen.

Auto zaharrak Hipodromo sarrerako aparatuak erakutsi zituzten 25 minutu eta 35 segundoko denborarekin.

Omenaldia Jose Miel Maiz korrikalari aiarra omendu zuten bestalde alzo antolatzaileek 1968an irabazi zuten Nazioarteko Krosean Mamo Wolde eta Nafarroa Pato korrikalari handien aurretik.

Itoitz bakarra Bestalde, hashiberi, infanti, kadete eta jubeni mailan ez zuten lasarteortiarren parte hartzen handirik izan, LOKE taldeko partaidea bakarra Itoitz herritarra izan zen.

Auto zaharrak Hipodromo sarrerako aparatuak erakutsi zituzten 25 minutu eta 35 segundoko denborarekin.

Omenaldia Jose Miel Maiz korrikalari aiarra omendu zuten bestalde alzo antolatzaileek 1968an irabazi zuten Nazioarteko Krosean Mamo Wolde eta Nafarroa Pato korrikalari handien aurretik.

Itoitz bakarra Bestalde, hashiberi, infanti, kadete eta jubeni mailan ez zuten lasarteortiarren parte hartzen handirik izan, LOKE taldeko partaidea bakarra Itoitz herritarra izan zen.

Auto zaharrak Hipodromo sarrerako aparatuak erakutsi zituzten 25 minutu eta 35 segundoko denborarekin.



Nuria Fernandez madrildarra nagusitu zen emakumezkoen lasterketako azken metroetan.



Pili Bodegas bigarren izan zen emakume gipuzkoarren sailkapenean. Iruindian erdi-erdian da.



2008. urteko gaitapena errepikatuz Kiproko Menjo kenyarra. Bakarrak heldu zen lehenengoa.



Itoitz Rodriguez pozik zen probaren amaieran. Iruindian bere guratsodun.



Gonzalo Sukunza talde honen buru pasa zen lehenengatik 29. izan zen amaieran.



Garai ezberdinetako auto zaharren erakutsia juri zuten atzo. Igarrita Hipodromoan apirilaketa antolatzaileek.

Riojanos
Afariak, Erretegia, bazariak, pintxoak, ...
Eta orain
Igandeetan ere irekita
Ustien kalea 13 • Tel.: 943 362720
LASARTE-ORIA

www.txintxarri.info
Albisteak, agenda, argazkiak, zorion-agurrak, Txintxarri pdf-n...

sj SANTA TERESA IKASTETXEA
EUSKARA, GAZTELANIA ETA INGELESA (CIM proiektua)
AUKERAK: FRANTZESA
TUTORETZA: ARRETA PERTSONALIZATUA
INGURUGIROAREKIN KONPROMISOA: AGENDA 21
KALITATEAREKIN KONPROMISOA: EFQM
leto 2 URTEKOEN GELA D Eredua
HAUR HEZKUNTZA : D Eredua
LEHEN HEZKUNTZA : B Eredua
DBH : B Eredua
BATXILERGOA

'Gora San Fermin' Lasarte-Orian

Martxoaren 3an, ostegun gizen, hasiko den ihauterietarako *San Ferminak* gaia aukeratu da

Pasa den asteko asteartean bildu zen inauterietan prestatzen dabilen taldea, eta aurtengo gaia zein izango den aukeratu zuten: San Ferminak. Proposamen guztien artean, gai hau izan zen arrakasta gehiena lortu zuena.

Gaiaz gain, egun osoko festa antolatuko dela erabaki zuten. Eguerdian hasi txupinarekin, ekitaldia, bazkaria (bakoitzak berea ekarri behar du), eta arratsaldeko desfilearekin amaituko da.

Mozorrotzeko aukera ugari

Seguruenik, zezenak izango dira gure herrian inauterietan eta hauekin batera San Ferminetako programa osatzeko laguntza eskatu nahi zaie, hutsuneak baitaude. Goizeko txupinarekin hasi eta egun osoko programazioa prestatu nahi da, beraz herritarren parte hartzea ezinbestekoa da. Egun osoko festa denez, oholtzako egitaraua osatzeko norbaitek ekitaldixoren bat prestatu nahi badu, jakinarazi dezala mesedez, antolatzaileek programan sartu ahal izateko telefonoz: 943 371448 zenbakian edo e-mailez kultura@ttakun.com helbidean.

ga, txistulariak, udaleko musika banda, txosna, "giri"ak, giriak botatzen diren iturria, sorosleak, txurreroak, barrakak, arrosa saltzaileak, CD eta DVD saltzaileak, jota-abeteslariak, bertsolariak, Kukurumuxuko zezena, erraldoiak eta buruhandiak, gaiteroak, herri kirolak, musika taldeak, txorizo-pintxoak, su artifizialeak, zezen-suzkoa, Villabesa autobusa, Hemingway, karikaturgileak, garbitzaileak, udaltzaingoa, gaixoa ni...

Programa osatzen lagundu

Inauterietan parte hartu nahi duten talde, elkarte eta norbanakoei San Ferminetako programa osatzeko laguntza eskatu nahi zaie, hutsuneak baitaude.

Goizeko txupinarekin hasi eta egun osoko programazioa prestatu nahi da, beraz herritarren parte hartzea ezinbestekoa da.

Egun osoko festa denez, oholtzako egitaraua osatzeko norbaitek ekitaldixoren bat prestatu nahi badu, jakinarazi dezala mesedez, antolatzaileek programan sartu ahal izateko telefonoz: 943 371448 zenbakian edo e-mailez kultura@ttakun.com helbidean.



Joko handia ematen duen gaia da *San Ferminak*, eta era berean gehiegi konplikatu nahi ez duenarentzat sinplea, txuri-gorritz.

Lasarte-Orian ospatuko diren *San Ferminak* erabat euskaldunak izango dira eta norbaitek zerbait euskaratze-

ko laguntza behar izanez gero, aipatutako telefono zenbaki edo helbide elektronikora jo dezake. •



Cervantes-en nobelako pasarte ezagunenak antzeztu zituen Agerre Konpainiak.

On Kixoteren bixita azkarra Kultur Etxera

Dultzinearen bila jarraitzen duen On Kixote, eta nobela ezaguneko beste hainbat pertsonaiekin gozatu ahal izan zuten larunbat arratsaldean Kultur Etxean Agerre Teatroa konpainiak eskaini zuen "Nork ikusi du Dultzinea" antzezlanaren ikuspena izan ziren ume eta helduek.

Miguel de Cervantesen liburu ezagunaren pasarterik

esanguratsuenak irudikatu zituzten aktoreek haurren artean irakurzaletazuna bultzatzeko helburuarekin. Gainera, bukaeran, ikusleak kantuan, txalaparta jotzen edota txotxongiloekin jolasen jarri zituzten.

Azken finean ikuskizun bikainaren partaide izan ziren antzerkera joan ziren haur eta helduek. •

Hiribusa mantendu egingo du Udalak

Lasarte-Oriako Udalak auzo elkarten eskaerari erantzunez, TSST konpainiarekin batera, Hiribusaren proiektu pilotua jarri zuten martxan irailaren 27an eta lehengo ostiralean, urtarrilaren 28an, amaitzen zen esperientzia.

Gauzak honela, Lasarte-Oriako Udalak zerbitzu honen jarraipena jakitera eman zuen Jesus Zaballos alkateak eta Martin Moreno Zerbitzu Publikoetako lehen-dakariak emandako prentsaurrekoan. "Astelehenetik aurrera, baldintza berdinetan eskainiko da zerbitzua," azaldu zuen alkateak.

Kopuru onak

Alkateak azaldu zuenez, azaroaren 12n eta urtarrilaren 12n datuak eskatu zizkion Udalak TSST konpainiari eta horien arabera, "10.260 bidaiari egon dira. Batz bestean, azaroan 5,3 erabiltzaile izan ditu bidai batean eta urtarrilean 5,94".

Azaroko joera jarraituz gero, 31.775 erabiltzaile egongo liriteke urtean eta urtarrilekoen arabera, 35.625.



Antxisu bailara eta Zabaleta auzoko herritarrek dira Hiribusa gehien erabiltzen dutenak.

"Datu hauek kontuan izanirik, Udalak zerbitzuaren balorazio positiboa egiten du," adierazi zuen alkateak.

Lehiaketa

Honetaz gain, zerbitzu hau Udalak kudeatu ahal izateko lehiaketara ateratu behar dela azaldu zuen alkateak.

Honela, lehenik, zerbitzuaren bideragarritasuna aztertzeko komisio bat sortuko dela jakinarazi zuen, "Zerbi-

tzu Publikoetako batzordeko kideek osatutakoa izango da".

Komisioak espedientea egin eta lehiaketarako orriak aterako dira. "Hori guztia hilabete batzuetan egingo dugu," aipatu zuen.

Eta herrialdea zerbitzurik gabe ez uzteko, "TSST konpainiak bere gain hartuko du hilabete horietako gastua," azaldu zuen Zaballosek eta. "Horregatik oso eskertuak gaude," atxiki zuen. •



Santa Agedari kantuan, datorren ostiralean, otsailak 4

SANTA AGEDA BEZPERA dela eta, datorren ostiral arratsaldean hainbat talde aterako dira kalera ohiko abestiak kantatzera. Erketz dantza taldeko lagunak baserrietara joko dute kantatzera. Erketz taldearen lokaletik abiatuko dira arratsaldeko, 18:00etan. Zabaleta auzoko bizilagunak. aldiz, auzoan arituko dira kantari. Zabaleta auzoko Antonio plazatik irtengo dira ordu berean, arratsaldeko 18:00etan. Urteroko ohiturari jarraituz, Lasarte-Oriako bertso-eskola, Udal Musika Eskola eta Xumela abesbatza ere kantari arituko dira herriko kaleetan zehar. Jalgi kafe-antzikotik aterako dira 19:30ean.

Oharrak

Odol ateratzeak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte gaur, urtarrilaren 31, Osasun Zentroan arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkaezina da eta odol falta dago!

Alboka txiki abesbatza

Alboka Txiki abesbatzak entseguak hasiko ditu, urtarrilaren 24an. 6 eta 12 urte arteko haur eta gaztetxoek irekia dago abesbatza eta ez da beharrezkoa musika jakitea. Entsegua Zumaburuko eliza azpiko lokalean egingen da, astelehenetan 19:00etatik 20:00etara. Anima zaitzete!

Santa Ageda Zabaleta elkarteak antolatuta

Santa Ageda bezpera, otsailak 4a, dela eta Eskean aterako dira. Irteera arratsaldeko 18:00etan Antonio plazatik izango da eta bilera otsailaren 3an, 19:30ean Antonio plazan.

Ostadar Atletismo

Korrikarako zaletasuna baduzu gerturatu zaitzete Ostadarko bulegora. Ekipazio berria egitera goaz eta herriko gizon-emakume guztioi luzatu nahi dizuegu Lasarteko korrikalari taldeko kide izateko aukera.

Informazio gehiago Ostadarko bulegoan, Geltoki kalea 25ean, edo 943 360 433 telefonoan.

Komentatu zure lagunekin eta animatu zaitzete!! Epea gaur, urtarrilaren 31n amaitzen da.

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00
eta 16:00 - 21:00
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Eskutitzak

Lasarte-Oriako hautagai sozialista, auzoak neurtzen?

Orain dela gutxi, aukera izan nuen ikusteko Zaballos jaunak egindako aurkezpen bideoa, Lasarte-Oriako alkatetzarako hautagai gisa. Bideoan argi asko erakusten ditu Zaballos jaunak bere izaera eta nortasuna. Gomen datzen dizuet ikusi eta entzun dezazuela, helbide honetan: <http://www.socialistasguipuzcoanos.com/lanoticia.php?quenoticia=896>

Benetan harrigarria da hautagai sozialistak bere aurkezpenean hitzik ez esatea orain arte egin duenaz, edo datorren agintaldian egin nahi lukeenaz; horren ordez, bere mintzaldiaren pasarte

gehienetan, oposizioaren ordezkariek iraindu besterik ez ditu egingen. Dirudienek, Zaballos jaunak ez du ezer positiborik eskaintzeko Lasarte-Oriarentzat, baina, hori bai, guztien aurrean ohartarazten gaitu zein gaiztoa den oposizioa, zein alferrek diren EAJko, Herritar Plataformako, Ezker Batuko eta oposizioko gainerako ordezkariek. Berak hala dio: horiek denak ez dute herriagan pentsatzen, ez lanik, ez ezer egingen; kea saldu besterik ez omen dute egingen. Okerrago oraindik: berak dioenez, oposizio manipulatzailerik horrek ke pozoigarri bat sortu du, lasarteoriarrek ikusi ez dezaten herriaren benetako egoera.

Ez, Zaballos jauna, pertso-

na heldu eta arduratsu batek ezin du horrela jokatu. Ez ibili bazterrak nahasten, lasarteoriarrok inozoak bagina bezala. Benetan gertatzen dena da ez duzula ezer baliozkorik aurkezteko, alkatetzan daramazun urte bete eskas horretan, eta ez dakizula zer egin krisi egoeraren aurrean. Oposizioko ordezkariek neurtzen ibili gabe, udaletxean bazenuke zer egin, zure eraginkortasun eza ezkatu ordez, lasarteoriarrontzat ezer gutxi balio baitu horrek.

Xelebrea da zure hitzaldiaren amaieran azaldu nahi izatea, zu eta zure alderdia, herriak behar duen aire fresko eta berritzailea balira bezala. Zer esango dizut, nire

ustez Lasarte-Oriako Udalak premia larrian du ate-leihoak ongi zabaltzea, aire freskoa sar dadin, barruan dagoen giro kutsatua berritu dadin erabat; baina, hori, hogeitaka urtetan udala iltzez eta giltzez itxita izan duzenok, ezin duzue egin. Aire berritzailea beste alderdiok ekar genezake, baina, zuk, nekez egin dezakezu halakorik. Jarraitasun hutsa da zure eskaintza, berrikuntzatik oso urrun. Ezer berritzailek egin nahi izatera, ez zinake hasiko oposizioari beltzenak esaten. Zaballos jauna, norabide galduan zoaz.

Estitxu Alkorta (EAJren bozeramailea Lasarte-Orian)

Iban Mayoz Txirrindularia

“Ez dakit noraino iritsi nintekeen”

■ Txirrindularitza utzi du talderik aurkitu ez duelako ■ Pena du azken denboraldian oso ondo ibili zelako ■ Iaz bete zuen zazpi urteko ibilbide profesionaleko ametsa: Tour-ean parte hartzea

Iban Mayoz Lasarte-Oriako txirrindularia erretiratu egingo da 29 urterekin, hemengo talde profesionalean tokirik aurkitu ez duelako. Pena du oraindik bospasei urtetan onena emateko zegoelako. Dena den, bete du bere ametsetako bat, Frantziako Tour-ean korritzea. Hain juxtu 2010eko Tour-eko 15. etapa izan da bere bizitzako azken lasterketa. Orduan erori, hiru saihets puskatu eta ezin izan zuen itzulia amaitu. Ondo sendatu da, baina ez du jarraitzeko aukerarik izan.

JON ALTUNA

Gabonak arte ibili da entrenatzen eta talde bila, baina urtea bukatzearekin etsi eta txirrindularitza profesionalean uztea erabaki du Iban Mayoze: “Hemengo taldeetan saiatu nintzen, ez zen ezer atera, eta alperrik da. Ez du pena merezi norberak bere burua engainatzea” esan digu egun Donostian bizi den txirrindulariak.

29 urterekin utziko duzu txirrindularitza profesionala, gazterik, ezta?

Bai, azken karrera oraindik 28rekin korritu nuen, irailean egin nituen 29, eta pentsa, oraindik beste bospasei urte onak baneuzkala uste dut.

Zer sentitzen duzu?

Alde batetik pena. Hainbeste kostatzen da eta horra iristea. Gainera, bizitza guztia Tour-era joan nahian ibili, ailegatu eta hortik, goi goitik, kanpora joatea, ez da logikoa.

Zaletasunik ez duzu galdu, hala ere, ezta?

Ez, azken finean hori barruan daramagu.

Zer gertatu da? Zergatik utzi behar izan duzu?

Talderik ez daukadalako. Kanpora joanez gero, nonbaiten, talde txikiren bat bilatuko nuke, baina hemengo talde-

tan ez dut lekurik aurkitu, Footon Servetto nire taldeak ere ez dit kontratua berritu,...

Orain arte talde bakoitzean bi urte eman dituzu, beraz aurten jarraitzea tokatzen zitzaizun,...

Bai, baina... Sekula egin dudan urterik onena izan da gainera, ... hala ere, taldea aldatu egin da, italiarra da orain, hangoek agintzen dute eta ez dute nahi izan. Zer egingo diogu bada!

2010a urte ona izan zen zuretzat: Giro ona eta Tour-ean ondo erori zinen arte... Erabat osatu al zara?

Bai, bi hilabete egon nintzen geldituta saihetsak sendatzeko, baina, ez dut batere ondoriozik, fisikorik behintzat.

Beldurtu egiten al da bat horrelako erorketarekin?

Bai, erorketa nahiko serioa izan zen, ez zen ezer graberik pasa, baina horrelako erorketatik edozer pasa daiteke; hezurak puskatu, biriketarik kolpea, ... gauza serioak dira.

Zazpi denboralditan profesional; zein izan da zure ibilbideko garaipen, oroitzapen edo unerik garrantzitsuena?

Eta garaipenik ez daukat, posturik onena aurtengo Giroan hirugarrena. Urtero urtero, hobeto ibili naiz, azken urtean maila ona eduki dut, Giroan 22.a bukatu nuen.

Arantza bat ere izango duzu, Tourrik bukatu ez izana, nahiz eta gai izan, ezta?

Bai, beti, txikitatik, Tour-era joateko ilusioa daukagu denok; hainbeste kosta hara iristea, ez bukatu, gainera min hartuta etxera joan eta hori izatea nire azken karrera, ... ba ez dakit bukaera txarra den, baina ez da behintzat txirrindulari batek espero duen bukaera.

Erakutsi zenuen Tour-a bukatzeko gai zirela...

Bai, bukatzea ez da zaila. Zerbait egitea da zaila. Fisikoki bukatzeko zailagoak dira egun bateko klasikoak, itzuli handiak baina.

Aipatu duzu urtero hobetzen joan zarela, topea emateko zeundela sentitzen al duzu?

Bai, sekula ezingo da jakin, baina, logikoa hori da.

Orain arte urtero hobeto ibili banaiz, 28 urtetik 32-33 urtera arte, bat hobetu daitekeela uste dut. Agian sprinterrek urteak pasa ahala galtzen dute indarra, baina itzuli handietan normalean hobetu egiten da. Ez dakit noraino iritsiko nintzen.

Munduko txirrindulari onenen artean ibili zara behintzat,...

Hori bai.

Ametsen batzuek ere bete dituzu, Tour-ean parte hartzea esaterako, nahiz eta nahi baino motzagoa izan...

Juxtu juxtu probatu dut, behintzat txikitan ilusio hori neukan eta hori lortzea ez dit inork kenduko. Ondo kostata lortu nuen eta.

Hainbat taldetan ibili zara 2004tik (Relax, Euskaltel, Xacobeo eta Footon). Oroitzapen berezirik ba al daukazu?

Bereziena aurreneko urtea izan zen, profesionaletaran pasa nintzenez. Dena berria zen, jendea, lasterketak, ... Azken finean profesionaletaran pasatzeko amets edo ilusio hori betetzen delako.

Eta Euskaltel hemengo taldea izanda,...

Txikitatik etxeko taldera joan nahi, baina ez daukat oroitzapen berezirik.

Egia da gehiago jarraitzen zaituztela; talde honetan ez bazaude jendeak askoz gutxiago ezagutzen zaitu.

Eta orain zer? Zer asmo?

Neuk ere ez dakit. Pixka bat gehiago jarraitzeko esperantza neukan, eta egun batetik bestera gertatu da.

Seme alabekin egoteko denbora gehiago orain...

Bai, bi horiekien ez naiz batere aspertzen.

Txirrindularitzarekin lotuta zerbait, agian?

Momentuz ez dut ezer pentsatu. Egunen batean zerbait interesgarria egiteko aukera baldin badaukat, bai, azken finean gustatzen zait txirrindularitza. Baina momentuz, ez, nahiago dut lasai hartu eta pixka bat deskonektatu.

Beste “karrera” egin al zenuen?

Ez, Enpresa Administrazio ikasketetan ikasturte bat falta zait, irailera arte ezingo naiz hasi, baina hainbeste urte ikasten pasa eta bukatu nahi nuke. Saiatuko naiz.

Aita txirrindularia zeneukan, gustatuko litzaizuke semea txirrindulari izatea?

Ez zait inporta. Berak nahi badu lagunduko diot eta nahi ez badu oso ondo irudituko zait. Hori norberaren aukera da. Ez bazaizu gustatzen ezinezkoa da txirrindulari izatea. Behintzat profesional mailan.

Azken urteotan hainbat saltsa izan da, prestigiorik galdu al du txirrindularitzak?

Nik behintzat irudipen hori daukat, kanpotik ikusita, gure irudiak asko galdu duela, baina hori ez da txirrindularitzaren benetako errealitatea. •



Elkarrizketa osoa www.txintxarri.info webgunean



Bideo Lagunak

BEGIRATU GURE ESKAINTZAK! Inguruko erakusketarik onena!

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.:943 373134
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

Betiko zerbitzua gure aholkularitza onenarekin